

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

160n. Zenbakia Otsaila-Zezeilla  
1992



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**MALLONA TA TXERTUDI'TAR IÑAKI  
(ARECIBO'KO GOTZAIN BARRIA)  
(PUERTO RICO'N)**

- ELEIZAREN SERBITZAILLEA
- PASIOTARREN KIDEKO ZINTZOA
- ABERTZALE SUTSUA

# ONDO BIZI ETA ONDO IL

## EUTANASIA?

Eutanasia dala eta ez dala, azkenengo egun onetan, gogarte sakonak erabili dodaz neure buruan.

Eutanasia'k eriotza ona edo biguna esan nai dau. Baiña eriotza ona ez da lortzen ziztada batekin, edo neke-miñak kentzearen, bizitza eten egiñik.

Bizitza osoa eta eriotz-ordua gauzarik ederrena legez artuten ikasi bearra daukagu. Ondo bizi eta ondo il, ara or gure ikasbiderik bikañena.

Ondo bizitzea gure barruan sortzen dan egarririk eta indarririk sakonena da. Eta, era berean, zergaitik ez ondo iltea?

Ondo bizitzeak baditu bere eragozpen, arazo eta auzi gorriak. Bai, orixe. Eta nork ez dau kementsu jokaten era-soaldi gogorrenak goitu eta garaitzeko?

Zartzaroan, gaixotasun luze eta larrian, burua makurtu bearrean, adierazo bear geunke gure izate osoaren autsi ezi-ñeko indarra. Ez da egokia eriotzaren eskeko izatea, baiña bai da bidezkoa eriotza onartzea.

## BIZITZAREN GORA-BERAK

Nork ukatu gaztaroak, ugaritasunak eta osasunak lagun asko daukezala? Zartzaroak, gaixotasunak eta ezbearrak, ostera, lagun gitxi euki ez ezik, gogo txarragaz eta aienez beterik artzen ditugu. Eta ori ez da ondo bizitzea.

Bizitzak, ona izateko, danetara jokatu bear dau: Zoriontasuna eta zoritxarra, gaixotasuna eta osasuna, gaua eta eguna, eguzkia eta lañua. Gauza guzti oneek era berean, al izan ezker, artu eta onartu bear ditugu. Bestela arrisku bat daukagu: zoritxarrekoak izan. "Gauza onak Jaunagandik artzen ba'doguz txarrak zergaitik ez"? (Job).

Beti bezala, batez be gaur egun, gure gazteak osasun eta zoriontasunaren aparra nun-nai agertzen dabe. Zarrak eta gaixoak, barriz, asko beintzat, bakartasunean kokilduta ikusten ditugu. Or dago gaur egunetako kezkarik sakonena: zaarren egokera tamalgaria eta gaixoen larritasuna.

Gure antxiñako euskaldunak esaten oi eben: "Zaartasuna, bera eritasuna". Eta beste au: "Zartzeak deus onik ez".

Egia esan, gaixotasuna ez da bakarrik gorputzaren ondo-eza. Gaixotasunak gure gogoa igar, zimel eta betillun jartzen dau. "Gaixoak gogapen gaixoak daukoz". Alde batetik aultasuna eta goibeltasuna, eta bestetik, bakartasuna, maitasun eza. Eta orretzaz gañera askoren esamesak: "ori burutik egiña dago, eztago zer egiñik, alperrikoak dira esaten jakozan gauzak. Egoera ortan, zer egiñ? Nora jo? Eutanasia eskatu?"

## EGIZKO SENDAGAIK

"Zarra eta labea aotik berotzen dira", esaten eben gure asaba zarrak. Bai aotik emon bear jake maitasunaren sua, laguntasun gozo eta eztingarria. Erosten diran sendagaiak osasun laguntzaille dira, baiña benetako sendagaia, egizko sendagaia izate osoaren ederra irabaztea da.

Sendagille askoren eritxiz, gaixoari etxako "ziria sartu bear", au da guzurrez bere egokera larria ukatu. Gaixoak bere gatxaren barri jakiteko eskubide osoa dauko. Eta ori onartzeko gure maitasuna eta grazia bear dau.

Gaixo larrian eta il-zorian eutanasiaren aldekoak askoz be gitxiago izango litzakez gure maitasunaren sendagaia ugari artuko ba'lebe.

Bizitza maitagarriak ez'dau eriotzarik nai.

Gauza •bat gaixo eta zar baten ardura euki eta beste bat bere gogora maitasuna eta eztitasuna eroan. Auxe da sendagirik egokiena.

Gauza bat da gorputzaren gatxa eta beste bat bere gogoaren illuntasuna eta etsipena. Persona batzuk eriotzaren guraz dagoz itun eta illun dagozalako. Gorputza gaixoz jota, eta gogoa oñazez itota.

Ondo bizi eta ondo il. Azken baten gure esku dago zarminduen zoria. Osasun etxeko sendagilleak eta etxe barruko senideak, danak bat eginda jokatu bear dabe euren alde.

Maitasunez bizi eta maitasunez il, auxe bai, ondo bizi eta ondo iltzea.

URIGUEN'TAR ZENON

## EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN IPUIN-SARIKETA 1991: EPAI-MAIAREN ERABAGIA

Bilbao'n, 1992'ko urterillaren 16'an batu da EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren Ipuin-Sariketarako Epai-maia, eta aztertutako ipuiñen elerti-balioak kontuan dirala, sari oneik emotea erabagi dau:

- 1.<sup>a</sup> Goikoetxea'tar Iñaki'ri
- 2.<sup>a</sup> Zubikarai'tar Augustin'eri
- 3.<sup>a</sup> Izenbarik etorri dan "Nor geiago" ipuiñari
- 4.<sup>a</sup> Merino'tar Palmi'ri.

Lau ipuin oinek ZER'en, otsaillean, argitaratzen dira. Bilbao'n, 1992'ko urterillaren 16'an.

EPAI-MAIAK

---

---

**...SALATZEN DOGU**

---

---

- 1. Latinkeri biurtzeraiño, euskerak gaur jasaten dauan ainbat eta ainbat erdal itzen eraso zitala, salatzen dogu.**
- 2. Erderaz pentsatuz, euskerara biurtzen dabenen joskera trakets eta ulerteziña, salatzen dogu.**
- 3. Euskerari ekarten yakon kaltea ikusi ez dabenen erri-erakundeen eta politiku alderdien arduera-eza, salatzen dogu.**
- 4. ETB'k eta agintarien mezu-bideek geienetan darabilen euskera ezain eta endekatua, salatzen dogu.**
- 5. Aldizkari ta egunkari geienak be, orrexegaitik, salatzen doguz.**
- 6. Erri-erakundeek indarrez jarri dauskuen erri-euskeratik guztiz urrundutako izkerea, salatzen dogu.**
- 7. Erritarrek ulertzen ez daben euskera erabilliz, Bizkai'ko Foru Aldundiak eta Udalek Bizkai'ko euskerari dakarkioen ondapena, salatzen dogu.**
- 8. Bizkaitar ikasleak euren etxekoa ez dan euskeraz irakatsiak izatea, salatzen dogu.**
- 9. Aoskatzen ez dan "H"z jositako idazkera zentzunbakoa indarrez sartzea, baita ain jatorrak diran "Ñ" eta "LL" otsak kentzea be, salatzen dogu.**
- 10. Bedarona orde z Bedaro, Bilbao-Bilbo, Galdakano-Galdakao, Laukiniz-Laukiz, Lazkano-Lazkao, Lemona-Lemoa, Sopelana-Sopela, Otxandiano-Otxandio, Zestona-Zestoa... eta beste erri ta tokien izen-laburpenak, salatzen doguz.**
- 11. Euskera zaintzeko ta goraltzeko ardura erabilli-bearrean, –orretarako sortu zan-eta–, euskera ulergaitza aurrera eroateko bereiziki aalegintzen dan erakundea salatzen dogu.**
- 12. Euskera zabaltzeko ta irakasteko aspalditik sortu ziran erakunde batzuk euskerari dagokiozan arazoetatik baztertuak izatea, salatzen dogu.**
- 13. Azkenez, goian aipatutakoak eurokin zer-ikusirik ez bai'leben, ainbat eta ainbat euskotarren euskerarekiko ardurabagekeria, salatzen dogu.**

**EUSKERAZAINTZA - EUSKERAREN ERRI-AKADEMIA'K**

---

## AMAIUR

---

### 1.º SARIA EUSKAL BIZKUNDEA

Amaiur'ko gaztelua,  
nafar askatasunaren azken gordelekua,  
lurrean datza, garaitua, zatikatua, birrindua.  
Etsaiak ez dau arririk arri ganean utzi.  
Dan dana dau ondatu, erre eta kiskali.  
Amaiur gazteluko ondakin ganean  
bela baltza, ikua-kua!, kantari, eriotzari,  
Euskalerraren zori gaiztoari.

Negua da... Negu latza.  
Nafarroa'ko mendi kaskoetan, mara-mara, edur baltza.  
Bai, edur baltza eta otza.  
Baztan araneke kanpaiak, idin-don!, illeta jotzen,  
eriotz albiste larria inguruetan zabaltzen.

Nor il da? Nor daroe lur-emotera?  
Amaiur gazteluko Jaun zarra,  
gudari kementsu jatorra.  
Nafarroa'ko askatasunaren alde,  
azken arnasa emon arte, burrukatu dauana.

Baiña, zer da au?  
Oi, Euskalerrri, Zuretzat lotsagarri!  
Ildakoaren atzetik iñor ez!  
Illerri bidean iñork ere dolu-miñik agertu ez!  
Non dira ildakoaren semeak?  
Non lagunak eta senideak? Non aberkideak?  
Ai!, Amaiur'ko gudari kemenak,  
Euskalerrriko semerik bikaiñenak,  
gazteluko arri-ondakiñen artean dagoz illik.  
Eta besteak espetxeetan katigu,  
kate astunez betiko illunpetan loturik...  
Euskalerrriko alabak,  
etsaien besoetan bortxaturik,  
alde egin dabe erritik, lotsaz beterik.

Amaiur Gazteluko Jaun zarra,  
gudari kementsu jatorra,  
lur-emotera daroe,  
bakar-bakarrik, isilik.  
Iñor ez atzetik.

Ez negarrik. Ez dolu-miñik!  
Negua da. Bai, negu otza,  
Euskalerrriko baso-zelaietan.  
Baiña, negu otzagoa euskal biotzetan...

Nafarroa'ko mendi kaskoetan, mara-mara!, edur baltza.  
Bai, edur baltza eta izotza.  
Amaiur gazteluko arri-ondakin ganean  
bela baltza, ikua-kua!, kantari, eriotzari,  
Euskalerrriko zori gaiztoari...

Amaiur gazteluko Jaun zarraren gorpu-illa,  
eleizan sartu dabe.  
Eleiza utsik dago eta otzik.  
Illun dago eta itun.  
Ez da aldarean ikusten argirik,  
ezta koruan entzuten kantu-soiñurik.  
Amaiur gazteluko Jaun zarraren ilkutxa ekarleak,  
gizon zital, lotsagabeak,  
ildakoa aldare aurrean utzi, eta alde egin dabe.  
Azken-agurrik egin gabe.  
Dolu-miñik agertu gabe.  
Eta an dago ilkutxan gudari zarra, jatorra,  
bakar-bakarrik.  
Ez otoitzik. Ez kanturik. Ez lagunik.  
Abadea, baltzez jantzita, aldare bazterrean dago,  
belauniko negarrez,  
aberri galduaren biotz-miñez.  
Eleiza utsik dago eta otzik.  
Illun dago eta itun.

Mezea asi da...  
Abadeak otoi dagio Jaunari:  
"Jaun errukitsu, arren esaiguzu,  
zergatik ain gogor zigortu gaituzu?  
Euskalerrriak zer egin dau pekatu?  
Etsaiak gaitu garaitu, zatikatu, birrindu.  
Gure izen ona iraindu eta zikindu.  
Gure aberriaren askatasuna lapurtu.  
Erri guztientzat gara barregarri...  
Pekatarari gara, bai, Jauna. Pekatarari andi!!  
Zure errukirik ez dogu merezi..."

---

## IPUIN-SARIKETA

---

Euskal anaien artean ez dogu alkartasunik,  
ez maitasunik. Ezta bakerik.  
Gorrotoa dogu etxean nagusi.  
Anaien odola dogu isuri...  
Biotz damuturik otoizka gagoz zure errukiari!  
Parkatu, Jauna, parkatu Euskalerrri gaixoari!!!  
Jaun errukitsuak, zeru ganetik,  
entzun dau abade euskaldunaren otoitza.  
Eta samurtu jako biotza...

Eta...  
Au miraria! !!  
B apatean.  
aldareko kandelak berez dira biztu.  
Koruko organua, esku barik, joten asi da alaitsu.  
Dorreko kanpaiak, aizeak bultzata, pozkari,  
errepikan dira ari.  
Eta...  
Amaieur gazteluko Jauna,  
ilkutxan etzunda egoana,  
biztu da.  
Eta zutundurik, besoak zabalik,  
deardarka da asi:  
"Euskal semeok:  
Izan biotz!  
Espetxeetan katigu zagozenok,  
ausi zuen kateak eta urten kanpora...

Igon mendi gaillurrera,  
eta otsegin oiuka, deadarka, garrasika,  
Euskalerrriko lau aizeetara:  
"BIZTU GARA! ! !"

Eta Euskalerrri osoan,  
Enkarterri'etatik Erronkari'raino,  
Baiona'tik Nafarroako Erribera'raino,  
erriz-erri, aizeak eroanda,  
deadar bat da entzuna:  
"AS-KA-TA-SU-NA! ! !"

Eta mendi gaillurrak, kaskorik-kasko,  
errepikatzen dabe erantzuna:  
"AS-KA-TA-SU-NA".

Baina, euskal seme, ondo aditu:  
Askatasunaz ez zaitez mozkortu.  
Amaieur'ko gaztelua  
lurrean dago, arresiak apurtuta,  
ateak erreta, almenak lurrera eratsita.  
Etsaiak bota ditu,  
baiña guk jaso bearko.  
Lan onetan ez deusku iñork lagunduko.

Euskal semeok:  
etsaikeriak baztertuz. danok lagun,  
auzolanean gogoz ekin daigun.  
Eskuak emonez alkarri,  
arriak arri ganean jarri.  
eta Amaieur'ko gaztelu zarrak burua dau barriz jasoko,  
Aberri askatuaren lekuko.

Amaieur gazteluko arri-ondakiñen artean  
an ildako gudarien ARNASA oraindik bizirik dago.  
Geroago eta indartsuago.  
Geroago eta gazteago eta biziago.

Negua joan da eta udabarria etorri.  
Nafan'oa'ko mendi kaskoetan orain edur zuri.  
Baztan'go zelaietan milla lore txiki:  
zuri, gorri eta orlegi.  
Amaim'ko eleiz-kanpaiak. idilin-dalan! alai joten,  
jaiotza barri baten albiste pozgarria inguruan zabaltzen.  
Norjaio da?  
Amaieur'en ildako gudari baten semea mundura etorri da.  
Nor jaio da?  
EUSKALERRI BARRI BAT JAIIO DA.

GOIKOETXEA TAR IÑAKI

# ITXASTAR JATOR BAT

## 2n. SARIA

Antxiña iatarrak arrantzale ziran.

Ba-dira oraindik bertan "Beletxe", gaur erdi kultura, erdi moko-fiñen talde baten txoko; len txalopetan ain bearezko izaten ziran bela, erramu (arraun), aingura (arlan-ka), lema, estrapu, sare, sarabardo, soka, tertza, tunbix eta beste tresnen gordeleku.

Edo ta gaur etxeekaz bete diran kale ertzetako lurrak, lengo antzera "Portu-solo", "portu-txiki" eta antzerako izenekaz ezagutzen diranak. Eta Astilleru kale, portu-bide ta abar.

Egon zan bertan Ea'ko arrantzalien Kofradia be. Natxitu zan udalerriko buru eta Ea arrantzaleak bizi ziran auzoa, baiña arrantzari ezarten eutsen euneko dirutzari esker biziten zan eleizatea, udallerria.

Eta arrain kabana (lantegia) be egon zan bertan, inguruetako bide egokirik ez eta egunero sartzen zan arraiña, astodun saltzailleak kanpora ataraten ebena kenduta, *gazi*-tu edo brixitu egin bear izan zalako, tartetan igaroten ziran errioxatar mandozaiñak berbatik igaroteko aukera eukiten ebenean erosi ta jaso egien.

Oraindik edozeiñek gogoratzen dakiz bertoko zarren arrain kalak: Apikal Eako abra, Ogella, Santamoro, besigutarako, edo ta Lotsa bankua.

Baiña urteak dira arrain bits, arrain-usain eta eskamak galdu ta itxastarren onuraz Ea txikia garbi ta aberatsago bizi dala. Arrantzalien oitura jatorrei jarraituz, itxastarrei be azken bake eta loa bertan eskintzen.

Itxastarren artean be ba diralako batzuk aberats eta besteak Jaungoikoak egindakoak.

Orrelako zan Perutxu bat.

Mundu asko ikusi eta biziten ikasia. Lenengotan diru apur bat artu orduko, gizon galdua. Gero bizitzako gorabera asko igaroa. Baiña itxasoan lez, kalean be, denboraleari brankaz eta popax aurre emoten ikasia.

Egia esateko, ez eban luzaro zori andirik euki. Itxasoratzen asi eta laster Filipinetara eioan ontzi baten sartu zan. Leorrera urten eta orduak aztu. Batek ba daki nun.

Kapitanak ontziaren urterako ordua emon eta txalopa bere zain. Jo ta jo turruna. Maite eban kapitaiñak biargiña zalako eta euskalduna zalako, eta orduak emonarren, agertzen ez. Eta ontziak eguna galtzeko arriskuz, ezin geiago itxaron eta urten egin bear.

Kapitana molla ingurutik begirik galdu barik... baiña nun ete ebillen?

Dantza lekuen baten sartu, larregi edan, diru poltsa be galdu, ordurarteko irabazi eta aurrez eskatutako zatiekaz. Orrelakoetan oi dana: asarraldi, alkar salatze eta azkenean zapladak eta poliziak bitarteko.

Gure gizonak ez eukan ezelako garbitasunik; ain zuzen be bere zedulea ontzian itxita joan zan eta ez ekian euskera besterik.

Ertzaiñak baitu eben. Kartzelan sartu eta euki. Eta kalera atarata be zer egin?

Manila'n, eleiz aurretik igaroeran, bertara sartu zan. Dominikar fraileak egozan an. Ango sakristauari zela-ala jakin eragin eutsan euskalduna zala. Ain zuzen ba-egoan bertan Bergara aldeko dominikar bat. Gertu egoan gure iatarra jan truke santu guztiak garbitzeko. Baiña frailea zuur egoan.

Bere bostean esan be bai: Leike txarto pentsatea, baiña onek "zepillu" guztiak garbitzeko zirikaldia be euki lei.

Lana billatu artean jana emongo eutsela agindu eutsan. Kontseju bakar bat: Beartsu, baina esku garbi ibilteko. Eskatu bai, ostu ez.

Aldi aretan Manila'ko alkate, mundakar bat zan: Etxeita, itxas kapitana. Fraileak jakin eragitean, arek esan eutsan beregana bialtzeko. Pozik joan zan mutilla eta bereala billatu eutsan lana. Filipinetatik España'ra tabakoagaz ebiltzan ontzietan. Zedula antzeko bat egin eutsan, ezaupiderik galdu ez egian. Eta ain zuzen iatar kapitana gertatu jakon ontzi barrian.

Gizon ixilla zan, berba gitxikoa, baiña biotz oneko. Urte bete beragaz ibili nai ba eban, jantzi eta abar berak emongo eutsazala ta alaxe galdaretako su-zaintzaille lez artu eban, gauetan lan egitekotan, baldintza bategaz: urte bete aretan, edozein portutara sartuta be, bakarrik sekula ez urtetekotan.

Perutxu mutil ona zanez, bere berbia bete eban.

Kapitan onek lengo itxasontziko kapitanari idatzi eutsan. Eta arek be lana ba eukala lengo tokian, jakin eragin.

Alaxe, ontziz aldatuta, jaubetu zan bere agiri, jantzi eta abarrekaz, eta aurrez eskatu eta artua eukana lenengotik ordaindu nai izan eban, baiña lengo kapitan arek, urrengoan "zintzoago" izatekotan, parkatu egin eutsan.

Amak etxeagaz ez aztuteko esan ba eutsan be, lotsatu lez egin zan urte bi igaro eta etxera ezelako ondasun barik biurtzen. Ama koitadeari min geiago emongo eutsalakoan. urrengo osteran baten elduko zala jakin eragin eutsan eta osasunez zaintzeko. Ez zala aaztuko.

Urrengo osteran baten Formosaraiño joan zan. Arako eroiana uztu eta an artzeko eukana oraindik gertuteko egoala ta amar egunetan zain egon bearra euki eban txalopeak.

Lenengo egun bietan sasoz elduten zan jatorduetara eta lotara. Irugarrenean gure mutilla barriro galdu. Oraingotan itsu-itsu galdu be.

Geroko egunetan ontzira biurtzen ez zalako, kapitana artegatu zan. Kalerik kale ibili zan arratsalde oso baten nun billatuko. Ezelako aztarrenik ez. Urrengo egunean bardin, itxastarrak ibiltzen ekien kale, zerka, kantoi, etxarte eta ingurutatik igaro, eta kafetetxe baten leioan igaro zitun orduak, nundik ikusiko. Baiña iñun agiri ez.

Eldu ziran egunak ontzian lan egin bearrekoak. Baiña Perutxu'k kale.

Etsi eban kapitanak. Konsuladuan jakin eragin eban zer gertatu zan.

Ontzia bete orduko, egun asko galdu zitula-ta, ordurik galdu barik ontzia itxasoratzeko aginduak artu zitun.

Agur gure Perutxu. Formosa'n, abentura barrien billa.

Kalean ebillala, egun baten monjatxu bi ikusi zitun. Euskal kera, itxura artu. Eureka urreratu eta ain zuzen be eureka berbetan astein, bide-kurutz baten kotxe batek jo ta tatarrez konort barik itxi.

Monjak eurak jaso eben eritetxe batera. Egunean egon zan ezaupide barik eta monjatxoak oraindik ez ekien nungo edo zein zan mutil ori eta ezin parterik emon, itxastarra izan eikeanik bururatu be ez jakoelako.

Konortera etorri zanean, txalopea itxas zabalean zan.

Monjak itxura ona artu eutsen mutillari. Eta ospitaletik urten eta nora joan ez eukalako, sakristanearen etxean sartu eben, ortulau lez laguntzeko asmotan. Bai mutillak pozik eta esker onez lagundu be. Eurak idatzi eben Ea'ra zer gertatu zan. Bardin ontzi jaubeei. Amak ez eban sinistu nai: Gure Perutxu monjetan? Ai ene bada, niri ziria sartuko daustalakoan?

Laster egin zan bertarako. Eatar itxastarrak ba dauke euki be meritu bat: kale baserritar antzeko dirala. Itxasoa eta lurra erabilten dakie. Origaitik ango ortutxoa erraz erabilten eben eta monjak emoten eutsen al ebena. Asko ez, jakiña. Santa Klara'ren kantu zarrak diñona: Monjen erregaluak –intxaurrek oi dira– ai eurak ere beti fin-fiñak ba lira!

Urteak aurrera eta etxe oneko alaba bat be billatu eutsen. Ama-alabak bakarrik bizi ziran etxe bat. Lan egin bear, baiña kezkarik eta burukomiñik ez. Ango izkuntza ba geldi-geldi ikasten asia zan. Ama zartxua, baiña neska fin-fiña. Berakatz atala lakoxea. Ortu txiki baten jaube ziran bertan. Merkatuan saltzen eben lortzen ebena.

Askotan bezeroen artean, tratuan denborarik galdu barik.

Baiña Perutxu'k ez eban bizibide barrian zorion andirik lortu. Ama zarra laster il zan. Eurak ez eben lortu ume-sortzerik bost-sei urtetan. Eta itxaropentsu bizi zirala, andrea izurrite baten il zan.

Orra barriro Perutxu gizon galdu. Oraingoan monjarik be ez eukan lagungarri. Politikako goraberetan, erbesteko misiolariak kanporatuak izan ziran. Ez eukan nun aterik jo. Andrearen senide batzuk, guzurretako salakuntzekaz, etxea be kendu eutsen, euren eskubideko zala-ta.

Andreagaz bizi zan artean etxea maiteago izan eban kalea baiño, eta ez eban esateko adiskiderik egin, bere etxetik kanpora.

Barriro itxasoan pentsatzen asi zan. Molletara urreratzen zan, emengo itxasontzirik urreratzen ete zan. Bitartean portuko lan zakarretan lortzen eban irabazi apurren bat. Baiña errialde aregazko merkataritza asko murriztu zan denborak ziran.

Urteak igaro ziran urtenbide barik. Alako baten Rotterdam'erako ontzi bat uztu eta beteteko lana gertatu jakon. Zer egin asmatu eziñik erdi zoratzen ibili zan egun orreitan. Urtetan be aurrera etorran eta Ea'gaz gogoratu zan.

Besterik ezean azurren atsedena Ea'n billatu nai. Igaroak igaro eta esango ziranak or konpon. Polizoi sartzea pentsatu eban. Geiagoko zalantza barik, eskutatatu zan, itxasora urten bear eban egunean. Urrengo egunean, bere burua agertu eban. Ango kapitanak ezagutzen zitun euskal kapitan batzuk. Eatarrak be bai. Eta pozik eroan eban azken porturarte.

Rotterdam'en ez eban denbora galtzerik euki. Laster billatu zitun Bilbo'ko erroltzetako ontziak. Eta eatar pilotu bat euretako baten.

Etxera eldu zanean, jakin eban urteak zirala ama il zala, eta ama zarrak, ezelako laguntzarik ez eukalako, etxea saldu bear izan ebala, bizi al izateko, baiña edozelan ibilita be Ea'ra biurtu ez dan eatarrak ez ebala ezagutu, eta aterpetzat etxeko ganbarea saldu barik itxi ebala.

Alaxe, eldu zanean, aterpea ba eukan, baiña andik gorakoa, goizetik asita, eatarren borondatean eta karidadean itxi eban. Orrela goizean eguna argitu orduko asten zan kalez kale kantari:

Kape apurtxu bat  
nok emon ba neko,  
amabi Agur Mari  
errezako nekoz.

Bizi zan artean ez ei eban egunik igaro kafe berotxoa nunbaiten artu barik, eta illuntzetan, Abe Maritakoetan, sekula sartu be ez goseti bere "kamañan".

## NOR GEIAGO?

### 3n. SARIA

Bizkorra, polita da Jonetxo neskatxa, errian danak kutun dabena, Bizkargi azpian, Morga gaiñ bizi dana. Itxaso urdiñera begira. "Txori egalari" esaten eutsoen, sarri sarritan kanpo joaten zan eta. Etzan orrela, baiña amak astelenetan Gernikara eroaten eban, oso pozik ibiltzen zanik; atsegin jakon gero, apal-ostean, an ikusitako gauzak esatea. Txoliña benetan gure Jone, esaten eban aitak be, amaika urteko neskatoa berau, Gernikan eta inguruetan ikusi ta gustatu jakona adierazten. Ezertxo baiño geiago bertsolariei entzuna josten jakon gogoan; areek bai zorionsu jentez inguraturik kantaka!

Apal-izkia egin ebenean, aitari esan eutson:

Neuk bere, aita, bertsolari izan nai dot...

Zer diñon barritsu? Zer sartu buruan?

Ain erreza dala usten don?

Baietz deritxot, aita. Nik gainera ba dakit nola egin bertsoak.

Bai, zera jakingo don berbak eioten, kantetan eta bat-batean esaten; ez don ori, ardiak zaintzea eta bertsoak egitea ez don gauza bardiña.

Bai, aita, ikusiko dozu. Urte bi dirala, Lopategi etorten jakun guri bertsoak egiten irakasten, nik asko ikasi dot orretan. Polito urtetan deuste bertsoak, ikusiko dozu. Ni gainera domekero, Belentxo-rekin, Erkizi ermita ondora joan oi naz eta an ezkutuan ekiten deustagu bertsoan; meza ostean eta arratsalde erdirantza an diardut nik bertsolari saioan; urreko aretxetan birigarroak bere, entzule egoten jataz.

Andik illabetera bertsolari-dema Gernikan, bertsolari nausiena ain zuzen ere, eta an zan Jone zur. Fz jakon ez ezer galdu. Egin eben areek saioa, baita sari galantak eskuratu ere. Jonek, kantu-doi-nuak, puntuak, asiera, amaiera, dana jaso nai eban.

Jonek bere kautan: "Noiz ni orrenbeste? Zorion eguna alakoa niretzat. Jakin daiala aitak, nik balio dodan ala ez, ardiak zaintzeko legez, bertsotan jokatzeko. Eta Poito etxean ba dala bertsolari bat!".

Bein bein, Erkizi ondoan orduan ere, aren jarduna entzuten gizaseme eldu bat egoan kuku; arri ta zur geratu zan neskato bi, bata bertsotan eta bestea entzuten ikusiz. Pozgaiñezka neskatoei doñotse: Datorren astelenean Gernikan bertsolari gaztetxoek nor geiagoka. Neuk eroango zaituet ara eta zuek bertsotan egingo dozue.

Gazte biak ez ekien gizon ari zer erantzun. Azkenez, orretan geratu ziran, baietz, joango zirala. Jonek onela: Bai, bertsotan egingo dot, auxe da ta nire aspaldiko guraria. Eta gizonak: "Oraintxe dozu aukera ezin ohea zeure gurari ori betetzeko". Tira, ba, frontoira bertsotan jolasten.

Gizon aren esanak itxaropentsu itzi eban Jone. Pentsa eta pentsa, domekaz ara joateko erabagiz geratu zan. Etorri arako gizona bere kotxeaz, Jone ta bere laguntzua, biak Gernikarako bidean jarri ziran. Jone, jakiña zan, artega samar lenengotan, baiña gero ta bioztiago egiñik joian bidean eta Gernikan batez ere. Egun eguzkitsua; neskatoa pozarren, aren barrutik uxatu ziran kezkek eta ardurak. Besteak bai, eta zu ez! iñotsan bere buruari. Saririk eskuratu ez arren, lenengo saioa dot. Birigarroak udalenez, kantetako, bildurrik ete?

Dema eguna, luzaro itxarora. Jendez beterik Gernika, jantzi dotorez, taberna eta kale berbots bizia. Emen Gernika eta bere pelota-leku zabal ederra, jentez geiago artu eziñik. Jonek beretzat, gurasoak etorri ba ziren: etxean geratu ziran, alabea barregarri geratuko zalakoan.

Meza entzun ostean, jolas-lekuan aurkitzen ziran ezagun gaztetxo asko, neska ta mutil, Morgatik, Muxikatik, Gorozikatik, Lumo eta ingu-



ruetatik etorriak; lenengoz zan izan bere, gaztetxo-  
en bertso-dema. Loraz eta zapiz apain-apain jan-  
tzirik egoan frontoia, iru kolorezko zapi biziz  
geiena, jaiak eskatzen eban letxe, tentak iñoanez.  
Oltza jagia or frontoi erdian bertsolari txikientzat,  
maitxo bat guztiz dizditsu egal baten urrezko kopa  
bigaz; mundu guztiak an zituan begiak, geienik  
baina Jonetxuk. Axe eskuratu bear zan.

Oltzan dagoz erreskadan jarrita zortzi bertsolari  
gazte oneen artean ezker aldetik dema zuzendaria;  
au ara ta ona ibilliz aurrenik, itxura onez atan bere  
bertsolari maisu bera. Orduak ots eginik, onan  
diñotse ezker-eskoi zituan bertsolari neska-muti-  
lai: "Entzun ondo, emen kanta doiñua, Bilintxek  
sarri erabillia:

"Iparragirre abila dela  
askori diot aditzen;  
eskola ona eta musika  
ori orrekin serbitzen.  
Ni ez nazu ibiltzen  
kantuz dirua biltzen.  
Eta kriskitin..."

Barrua arindu jakon Joneri, ba ekian berak  
doiñu ori, sarri Erkiz-ko arbola artean abestua.  
Egingo eban alegiña, iñoan begiak gora jasorik.  
Neurri eta doiñu orretan ekin bear eutsoen beste-  
ak, bostgarrena egoan Jone. Saiatu ziran lenengo-  
ak, eta ez txarto ere, doiñua ondo erabillen eta  
letra bizi-bizia, eredutzat emon jakenez. Zir-  
tolarietatik Durangarra izan zan lenena, goi eta  
bikaiñik egin ebana. Banaka lenengo, gero egingo  
eben biñaka. Lenengoak egia gaitzat, ondorengoak  
ere gai berezia artuko eben, bat-batean botateko.

Bigarren Elantxobeko mutiko amairu urtekoak  
itsasoa gai, eta bertako portu ikusgarria goratu  
eban bertso politez. Irugarrena, gure morgatar  
Jone izan zan, Goiko baserrikoa; mikrora urreratu-  
ala txaloz josi eben. Atara eben durundua! ezagu-  
nak eta ez ezagunak!

Gernika jarri jakon ekin-gai. Oltza erdian zutik,  
eder eta gazte, sekulako txalo-otsak jo eutsoezan  
asiar batera. Gernika aupatu eban fin-fiñik;  
Gernika len eta orain, Gernika eta inguruak, jentea  
zar eta gazte, Gernika kale ta baserri, Gernika eta  
Lumo, Errenderi eta Axangiz...

Irakur emen arek kantatutako zati bat:

"Gure Gernika eder daukagu,  
alaia eta sorgiña;  
gerra dongeak eban zuzitu,  
baiña gaur barriz bikaiña.  
Eta kriskitin, kraskitin  
Gernika nik maite..."

Urretxindorra zirudian kantu gozoz, ezin ixil-  
dua. Gernika eban goratzen Euskal Erria aupatzen,  
gure mendi eta muñoak jasotzen, euskaldun jentea  
bizkortzen, bere aita eta ama Morgan edertzen...  
Jarduna amaitu ebanean, alako truízu antzeko  
txalo ta gora! zaparradea!

Beste bostak ere euren gaiak kantatuz bizkor  
jokatu eben, bertso zoragarriak urkultzen.  
Zuzendariaren esanera ordu ta erdian luzatu zan  
erronka eta azkenez sariak. Danak egon ziran bi-  
kain. Norentzat, beraz, sari nagusia? Maiko epai-  
lleak ere askotan ezmezean egon oi dira, nori  
emon ez dakiela, eta txalo zartarik luzeena izan  
dauanari emoten. Argi egoan, bada.

Jonetxu jantzi gorrizkaduna izan zan orretan  
nagusi; berau erriari geien gustatu jakona, sutsuen  
txalotu ebana. Orixe iñoan zuzendariak, orixe  
bertsolarien maisuak, orixe erriak kiñuka, eta  
Jonetxuk artu eban alkateak emondako urrezko  
kopea; frontoi osoak eskiñiriko txalo-ots ikaraga-  
rrian artu ere. Esker onez Jonetxuk beste bertso-  
sail bi abestu eutsozan erriari.

Jai biribilla, bete-betea. Erriak luzatu egin eban  
bertsolari txikien jai. Denpora luzean ezin izan  
eban aztu. Jonetxu barriz, poz-eztitan, gabaz etxean  
apaldutakoan bertsoak bertso eioketan

IZEN BARIK

## OLERTI EGUNA LARRAN (32.<sup>a</sup>)

### Bizitzaren zorroan Lau olerkitxu ezbardinak elkarri lotuak

Oler-garra bizi-bizi egoala asi gintzazan egun au ospa-tzen eta orretan jarraitzen dogu oidiño be; gauza onai ez jake sekulan be agurrik egin bear.

Beti egin izan dogu, eta olantxe aurten be. Kristo Errege egunez emon geuntson berea egun gogoangarri oni: goizean mezea, onen ostein sariak banatzea, itzaldiak, olerkiari buruzkoak ain zuzen, olerki sarituak irakurtea, eritxiak agertzea, olerkarien jarduna, geitu ala gitxitu, obeak ala eskaxagoak, jardun luze interesgarria.

Azkenez, euskaldunok oitura dogunez, bazkari anaikorra, bertsoz, kantuz eta itzaldiz piper-minduta. Eguna naiko illundurik egoala emon geuntsan amaia ekiñari. Agur eta besarkadak, datorren urterarte. Bitartean lanari ekiteko asmoz.

Larra'ko olerti eguna beti izan da, lenengotik gaur arte, diruz urri, baiña gogoz eta borondate onez ugari; oler-lanak, iru saillekoak -lirika, poema eta bertsolari mailla- polito eldu dira, bai moltzoz eta bai gaiez, lirikan amasei lez, poeman lan ederra eta bat-batekoetan ez urri. "Olerti" aldizkarian agertuko dira. Lirikan "Oraintsu" angoko batek eskuratu eban saria, poeman aspaldiko Martin Ugarte Saletxeko jaunak eta bertsoan Agustin Beloki legazpiarrak Zaitegi'tar Jokin lanarekin.

Eta zuk bere, Olerti-Egunean emen izan etziñen orrek, zelako lanak datozen ona jakin daizun, emen dozu ondoren M. Ugarte'ren poema ederra, irudimenez azkar, eta euskera ederrez, eredugarri doguna. Urtero bialdu izan dausku poemaren bat, auxe lakoa, eta onezkero ba ditu 25 bat onako, legazpiar gizaseme jakintsu, olerkari porrokatu onek. Lotsati da eta nik lan orreik argitaratu egin bear dirala diñotsadan-arren, ezin dot orretan ipiñi. Egunen baten...

AITA ONAINDIA

#### I BEGITIK BEGIRA (Maite kantua)

Ikusten diardut, ikusten,  
muxu biribilean  
ler-zoriz begi bi.  
betil txutietan gordeka  
txingar antzo ñirñiraz,  
izarrak irudi.  
Izar-bikutza,  
bi begi lapur,  
ezten zorrotz bi;  
dizdira ezkoz,  
nini beltzekin  
paparrez txuri;  
keiñuak axial,  
jokeraz argi.  
Bi bolatxoek  
dir-dir txaltari,  
nere lotion  
arrapatari...

Lauso-sarea urraturik  
elkarren ezbaian,  
gutxi-gutxika urbil miñetan  
gerta leikenaren leian.  
Mintzo gabeko elkar topatze,  
keiñu-jokuaz agian,  
itsu zureak, itu nereok  
barne sentipen zurrian.

Maitasun txingarretik  
itzaltzeko kera...?  
Ni, arrebeta aurrerantza,  
zuk oinbete atzera:  
t'ion tartea lausotzen  
unetik unera.  
Argiak kerizpeaz  
daron joku bera...

Nere begiok tokirik ote  
zure betaurre-sarean?  
Ala agian batekoz-beste,  
nauzu erraiñu utsean?  
losintxakeri otzean...?

Zanpatu dizkit  
amets zoroak.  
ardatz gabeen  
doan kurpillak;  
etsipen kabuz  
ikustaria,  
etenarazi  
sentipen soillak.  
Orain, ixurgai  
begi-malkoak:  
negar-punpillak...

#### II MARI-MATXARDA

Joskiña dala, joskin abilla,  
Mari-matxarda andrea.  
Galtzipirdiak ilbantzen pasa,  
argitzetik illuntzera;  
senar gaxoa, galtzetan estu  
artu nai luke ostera:  
atze ta aurre josi baitio,  
arabakiaz batera.  
Beazmuttur birekin,  
kriskitin soiñua,  
aste buru-zorian,  
kartetan saioa;  
seiarekin jotzen du,  
zazpian keiñua...

Titaretxoa galdua omen,  
jostorratza paparrean,  
oial beltxean ari txuria,  
—ori besterik ezean—  
Nolabait ere, azka ta puzka  
nagiak ateratzean;  
orrazmuturra esku-mamian  
sartu du bete-betean.

Ttuntturrin, ttuntturrin,  
danbolin soiñua...  
Bi bidar eten zaio  
ari-albaiñua...

Agian inork ez dio eman  
bear ainbat sona,  
ala ez ba'litz jaso dezake  
merezi dun fama:  
Alabarentzat josiko omen  
ikusteko gona.  
Gona dun ttantto gorria,  
ez nolanaiko ezkonsaria;  
sei orriko gona!!

Dala ez dala,  
au dek azala!  
Espillu truke,  
emango luke;  
soiñean daukan  
aurre-mantala...

#### 111 ERLEEN MUNDUA

LANDETA'ko sagastian  
lau teillatxoren azpian;  
KUXKIN erlamak bizi-leku du  
eultzaren errai itxian.

Bertan millaka lankide,  
lankide ezik senide;  
denak urduri elkarren leian,  
urduri baiña langille.

Gazteak landan burrundari,  
elduak barne-lanerako;  
denak elkarren esaneko  
ama dutelarik gidari.

Egalari txikerrak, giro arabera,  
landan ikusmiaka loretik lorera.  
Onek, eztena txorrotx lore-mototsera,  
eztigai xurruapaka goxotik goxora,  
t'agortu ordukoxe lore-gurin-bera;  
parapoa beterik darama eultzera.

Arek, lore-lausoa, jasotzeko lana,  
eultzan izan dezaten umekiak jana.  
Xankame-orraziaz kirrikatu ala,  
ixter-xurdetan artu opil kiski bana  
t'arretaz daramazki aizpekidengana.

Urrengoak, ur-negar gixia du maite,  
ta maiñaz jasoko du aotxoa bete.  
Bakoitzak lan jakiña bereizturik dute,  
sukor joan-etorrian arrats-aurrearte;  
eta biaramonez beste onenbeste.

Osterongo erletza, eultza txukunean,  
argizari txuriaz orma egiñean.  
Gero ezti gozoa lantzen dutenean,  
mintza estali eta xulo bakoitzean;  
maiñaz gordeko dute markats barrenean.

Udaldiaz bukatutxea,  
erletxoen lana,  
eta arretaz neurtua dute  
bildurik zutena.  
Maizter-saritzat murrizturikan,  
uztaren laurdena,  
urtarorako bizigarria  
osteronga dena...  
Baiña negute gordiñean  
erletxoengana,  
gosean-gosez atea joka  
erlatxori jauna.  
Atezain xuurrak ukatzeaz bat,  
eskari bakuna,  
moko luzeaz irentsi ditu,  
erle ta erlama;  
t' markats txurian janaz zekarten  
eztiki biguna...

bai, il zan erlama gidaria,  
ta il ziran erletxo langille  
eredugarriak,  
egazti gosetiaren erraietan...

Geroztik,  
ez pitxer-eztirik,  
ez argizari kiribildurik;  
ez da ikusi Landeta'n...

Il ziran...  
Etxeko jaun urtetsua,  
ta amonatxo txurtua;  
baiña ez zitzaian biderako  
oizko argizari zuzirik piztu;  
il-elizkizunetan...

#### IV LANA

Lana...  
Egungoz-egungo lana.  
bizitzaren zutabe  
izaniko lana...  
Betidaniko  
bizigai iturri,  
ta utsartean betegarri.  
Pozaldi ta gogaitorduen  
etenguna.

Ezker-eskuak,  
eskumari damaion  
eztenkada dirudi.  
Xuxenentzat eskergarri,  
nagientzat aspergarri;  
ta, alperrentzat  
madarikamena.

Paradisua galdu zuanetik,  
lanaz mantendu da gizona.  
Lana aukeratu beti ere,  
bizitzaren lege.

"Ez lan,  
da ez jan".  
Ala izendatu zuten  
gure arbasoek,  
alperraren mundua.

Baiña aurrerantzean,  
gizonari ez dio,  
lanaren pixuak  
bizkarrik makurtuko.  
Lanak ez dio bururik urratuko,  
ez, besa-zaiñik nekatuko;  
besterik izango zaio mundua.

Argitik-argirako lan-ekiña,  
joanaren historiarako,  
orri-betegarri baiño  
etzaio izango.  
Ta, orri beraren osagarri,  
nekepeko uzka-puzka  
ta ixurjarioz  
botaeraziriko,  
izerdi galdua.

Aal egitearen galga,  
denboraren txarrantxak orraztuala;  
Lanorduak murriztu.  
Oporregunak bikoiztu.  
Asteburuen neurriak tolestu.  
Ta, `jai biaramona jai".  
-nagiaren amets antzua-

Edu ontara tajaturik,  
lan-urtearen pardelerako,  
eguntxo bakarra lanerako;  
ta bera ere jai-giroko:  
Matxin-txiki errementariari  
opaldua...

Kolpetik baretu,  
oizko lan-ekiñak:  
esku-azal lakar,  
eta besa-zaiñak.  
Aaztu, nekepeko  
etekin mirriñak;  
ta arras agortu,  
izerdi osiñak.

Nasaitasun billa,  
gizona borrokan,  
aaz-gain etziñik  
ordu zoroetan.  
Gurariz-gurari,  
zer nai begietan;  
zoriz moskorturik,  
ezti-aparretan...

# OSANEREN AMAMAREN AMAMAREN AMAMA

## 4n. SARIA

### Euskal mitologiaz goiarnasturik

—Ene laztana! zergaitik egiten dozu negar?...

—Ez dot sinitu gura amama, ez dot sinitu gura.

— Baiña... zer da nistu gura ez dozuna, Osane?

—Zuk azaldu deustazun ipuin zaarra, amama.

—Baina ume. ori baino ez da izan, ipuin zaarra.

—Bai, baina zuk esan deustazun legez, Laminak ez dira barriro agertu. nik ez dodaz inoiz ezagutu eta ezagutu gura dodaz. Zergaitik il bear ebezan? zergaitik, amama?

—Laztana. orren errua ez dogu inorengan bota bear, esnezalekeri bategaitik jazo zan eta orretan edozein gizaki jausi daiteke.

—Baina amama, Laminak benetako gizakiak ziran?

— Benetako gizakiak ziran ala ez, inork ez daki. Gerritik gora, emakume ederrak zirala bai, ondo dakigu, eta oso esnezaleak bere bai. Gerritik beera, ostera ez ziran danak bardinak. Batzuk aate oinak, beste batzuk auntz oinak eta baegozan bere arrain butzaneakoak, urruneko itsasoetatik etorriak.

—Ena, amama! orduan, San Juan eguneko artan il egin ebezan Laminak ez ziran guztiak, ezta? auntz oinekoak an ez egozan, ezta amamatxo? orrela da?

— Ala dirudi, laztana, baina danak aienatu ei ziran.

—Ezina da, amama, ziur nago ezetz! jazoera arek aate oin itxurazkoei buruz bakarrik berba egiten dau.

—Bai, laztana, orrela da: eta orain egizu lo lasai eta biar onetaz berbetan jarraituko dogu. bai?

— Ondo amama, benetan dinostazu, ezta?

—Bai, Osane maitea, emoidazu mosutxu bat eta biar arte.

—Biar arte, amama... muuuu!

Amama joan orduko, Osane ogetik jagi zan eta ixil-ixilik kajoi batetan eukazan irudi batzuk artu eta leiorantz joan zan ilargiaren zilarrezko dizdirapean irudiak obeto ikusteko, amamak oneka ez eikean argirik ikusi: Laminen marrazki areek, gainera, ilargiaz argiturik alkoz politago ikusten ziran.

Amamak ordu batzuk lehenago erakutsi eutsozanean eta ipuin negargarri a edestutean ez eban auntz oineko Laminik aipatu. Irudietan agertzen ziran Lamina guztiak aate oinekoak ziran, ule luze, argi eta dizdiratsua euken. Areetako batetan Lamina bat beste txikiago bat, urrezko orrazi ederra eskuan, orrazteko prest egoan.

Luzaro begiratu ostean. Osanek, irudiak bere lekuan gorde ta ogeratu zan. Laster loak Osane artu eban eta lo zorroan egoanean...

— Krist! Krast!...

—Zer da ori? amama, zu zara? zer da apurta dana?

—Ix000...! zagoz ixilik. Osane! neu naz, zure laguntza eskat-

zen etorri naz, parkatu baina leiotik sartzean Ieiarrak apurta egin dodaz, kontuz zatitxuakaz.

—Baina, nor zara zu? nik ez zaitut ezagutzen, nungoa zara? zein da zure izena? zergaitik ezagutzen nozu?

—Astiro, astiro neskato, banan-banan erantzungo deustadaz zeure itaun guztiak, baina orain esaidazu; ez daukazu esne apur bat ortik?

—Esne apur bat? emen ez dago esnerik, sukaldean egoten da beti, baina... ori... zeozer gogoratzen nago... Bai! amamaren kontaketa zaarrea, Laminak oso esnezaleak ziran eta Lamintxo oso esnezale batek bere aitzak salatu ebazan...

—Bai! bai! ixildu zaitez, mesedez! ez dot gogoratu gura, ez dot egun madarikatu a inoiz aaztuko, neu naz, neu naz Lamintxu salatari a!

Agoa zabalik Osanek, leiotik sartutako neskea goitik beera begiratu eban; aurpegiz oso polita zan, bere begi olergiak erreka-ko ura baizen ederrak izanarren begi-goibeldasuna eben, bere soinekoaren seda-oiala eskuratu ezinezko urdinez urraturik egoan, ulearen luzeera sinistezina zan, eta aren oinak ikustean Osanek ikusten egoana benetan sinestegaitza zala pentsatu eban, bere aate oinak zauritu eta odolatan, egoera tamalgarrian egozan. Alan ta guztiz bere. eta sinistu ezinik esan eutsen:

—Lamintxuri zu? ezina da, zu oso gaztea zara eta amamak edestutako kondairan sortzen dan Lamina orain ez litzakean bizi izango.

—Neskato maitea! nire bizitza luzearen kondaira jakingo bazendu! zenbat neke, min eta atsekabe zu aurkitu arte!

—Ni aurkitu arte? zergaitik? nik orretan zer ikusirik ez dot.

—Zuk ez, Osane, baina zure amamaren amamaren amamak bai: bera zan nire salaketa bete ebana. Ni oduan oso gazte eta ezjakina nintzan eta gozozalea bere bai. Esne apur bategaitik edozer egiteko prest nengoan, orregaitik Lamintxuri izendatu ninduen.

—Baina Laminak zelan aienatu esateak, ori larregi da, eta parkamenik ez dauka.

—Badakit. badakit! une artan egiten nengoana nik ez nekian eta orain neu naz aate oineko Lamina bakarra. Zigor bategaitik nago munduan.

Eta zergaitik salbatu zinan zu?

—Zure amamaren amamaren amamari gure ixilpekoa esan neutsonetik, ni San Juan egun guztietan errekatik urtetan nintzan eta zugaiz artetik ezkutaturik, bildurrez beterik, urteren batetan zekor bikoitz bategaz erreka lantzen ete eban itxaroten nengoan. Zure amamaren amamaren amamak gure ixilpekoa aaztuko eba-

naz itxaropentsu nintza, baina alperrik, bera erritar guztiei esan eutsen eta nire zoritxarreko urte batzuk geroago egin eben. Nire aizta nagusien odola errekatik zelan sortzen zan ondino gogoratzen dot. Au zoritxarra!

– Zergaitik zuk ez zeutsen eurei aurretiaz iragarri?

– Ez nintzan ausartu. beti asarre eta agiraka egiten nenduen nire esnezalekeriagaitik eta euren asarrez bildur nintzan. Nik ez nebazan mindu gura, asko maite nebazan. orain eurekaz egon gura neuke, baina ezin dot nire zigorra bete arte.

– Nortzuk zigortu zinduezan?

– Basoko Laminak. Eurek. San Juan eguneko artan errikoak zekor bikoitzagaz erreka dragasten joan ziranean eta erreka ura gorritu zanean, danak ilik gengozala pentsatu eben. arrituta egozan erritarrak gure ixilpekoa ekielako. Geroago basoan aurkitu ninduen eta ni, guztiz etsita eta negarminez egon arren, damututa eta nekez beterik egona Qatik, dana azaldu neutsenean gogor zigortu ninduen, eta geien bildurtzen nauanagaz gainera: bakardadeagaz. Lamina bakartia naz ordutik.

– Eta basoko Laminak, nora joan ziran? nun dagoz orain? zergaitik ez dauz inork ikusten?

– Euren erreka lenguzinak desagertzean danak batzartu ziran eta guztiak batera. eurek be desagertzea erabaki eben, orrela ez lirake nitaz errukituko eta nire zigorra gogorrago izango litzake. Urte artan izan zan basoan izugarritzko sutea.

Lamintxuri eta Osane, alkar besarkaturik, negarrez asi ziran. Osanek bere amamaren amamaren amamak erritarrei Laminen ixilpekoa esatearen zergaitia ezin eban ulertu, eta alan esan eutsen Lamintxuriri.

– Nik esango deusut dana, Osane –esan eban Lamintxurik– Orain urte asko ta asko dirala, Osane (orixe izan zan zure amamaren amamaren amamaren izena) basotik etxerantz joiala, nire aizteak erreka ertzean orrazten eta orrazten, eta abesten ikusi ebazan, eurek konturatu ziranean uretan ezkuratu ziran, gizakumeen aurrera ezin ziran agertu eta.

Osane geiago ikusi guraz erreka urbildu zan; ezin eban ezer ikusi, baina erreka ondoan urrezko orrazi bat aurkitu eban eta oso polita izanez gero, sakelan sartu eta etxerantz abiatu zan.

Nire aiztea bere galtzeaz konturaturik eta nork eukan jakitean, asarre bizian jarri eta gabaz Osaneren leiopean birdurgarritzko abestiak abesten eta abesten egon zan. Osanek. ostera, ez eban bere orrazi ederra galdu gura, naiz eta loak ezin artu.

Urrengo gabea nire aiztea, barriro bere, neskearen leiopea abestera joan zan, eta Osanek. azkenean, bildurturik eta erdi zoraturik, orrazia leiotik bota egin eban, baina amorruz beterik eta mendekatu egin guraz. Nik ez nekian ain mendekatia zanik eta bakarrik asarretuta egotean gure ixilpekoaren truke esne apur bat emongo leuskidala pentsatuz. nire aiztak ondamedira eroan nebazan.

– Esaidazu, Lamintxuri, nire amamaren amamaren amama bere zalaketaren ondoriok ikusi ebazanean. lasai bizi eitean?

– Itxaron, itxaron apur bat, Osane. Zure aurreko Osanek gure ixilpekoa lakatu ebanean, amairu urte baino ez ebazan, baina zekor bikoitz a lortu eta aunditu ebenerako bost-sei urte igaro ziran. berak ia ez eban umekeria a gogoratzen. Baina ondino ez deusut nire zigor osorik azaldu.

Nire lenguzinak, basoko Laminak, inguratu ninduen eta zigortzeko, buruan urrezko orrazia josi eusten kaltegarri au botaz: "zure aizteen odol artean aurkitu dogun urrezko orrazi au, lepo ganean josita eroango dozun bitartean, Lamina bakartia izango zara. Osane deritxon neska batek bakarrik kendu daiketsu, ez

dozu inoiz lagunik izango, ez eta bizilekurik bere".

Ni asieran ez nintzan larregi bildurtu, naiz eta bakardadearen arerioa izan, banekian Osane bakarra nun aurkitu, bera nire errukidea izan zan eta nai ta nai ez orrazi kenduko leuskit. Errirantz abiatu nintzan eta eldu nintzanean... a zan gertaera lazgarria! erritar guztiak Osaneren etxe aurrean negarrez eta otoiitz egiten egozan. Ilunpeko baster baten ostendu nintzan eta alkarritzeta izugarri au entzun neban: "Osane zoritxarrekoa" Errekako Laminak aienarazi genduzanetik, goibeltsunik sakonenean sartu zan.

Ezkonbarria eta aur bat itxaroten, Laminen aienaketa ez egiteko eskatzen etorri jakunean, aurdun guraria baino ez zala pentsatu genduan. Azken urte areetan kalteak izan ziran errian eta errudunak Laminak izan zirala usten izan genduan.

Orregaitik ez geutson jaramonik egin, eta bera, goibeltasunaren goibeltasunaz gaixotu egin zan, eta gaixoaldi orrek eriotzara eroan dau. Senar alargun gaztea itzi dau eta amabost egunetako neskato bategaz gainera, Maitena zoritxarrekoa! ain txikia amatororen umezurtza...! Orain bere amamaren baserrira eroango dabe".

Nire inguruan guztia biraka asi zan. Zer egin orduan? bera zan gizagaixoa inguruetako Osane bakarra... noiz arte izango litzake nire bilaketa eta bakardadea?

Orain badakizu zure laguntza eske etortzearen zergaitia, zeu izan zara ordutik ona Osane izeneko bakarra.

– Bai, baina ondino ez dot ulertzen zer dala eta zagozen ain gazte: igaro diran urteen ondoren ezinezkoa da... zelan ba...?

– Ez da ain ulergaitza; zure aurreko Osaneren sasoitik ona niretzat sei urte baino ez dira igaro... zeuentsako ogeitabost urtetako epea dana Laminentzat urte baino ez da, orregaitik, kontua ataratzen badozu, jazoera artatik ona zuentzat berreun urte, gitxi gora beera, pasatu dira... Ulertzen dozu orain naiz eta itxura zoritxarrekoa izan, nire aurpegi gaztearen zergaitia, neskato?

– Baina... ain zagoz mari txirgil eta zauritua...ene!

Oso txarto ibili naz mundutik, beti ortik ara eta andik ona, Osaneren baten bila. loak artu ezinik, nire gorputzak bear eban esnea lapurtzen eta, gainera, inogaz berbarik egin ezin. Onek bai urte latzak! ez dot atzedetik artu, ez eta alaitasunik bere. Nire aiztakaz nehari bitizta alai eta atsegingarriaz orain atsekabez oroitzen naz...

Osane poztu ezinezko negarretan egoan. Berak bere asaba baten izena ebala baekian, baina ez geiagorik. Orain bera zan Laminentxurien lepoaren gainetik orrazia kendu bear ebana, bildur zan, ez eutsen minik egin gura. Lamintxuri, ostera, irribarrez egoan bere bakardadearen amaiera eltzen zalako.

Itxi ebazan begiak Osanek eta, orrazitik teinkatuz, kentzeaz batera konortea galdu eban. Une batez mendeetako gertakariak agertuz joan ziran Osaneren begi itxien aurrean... urteak eta urteak, eta Laminek urte guzti areetako gertakari ororen lekuko; eurek dana ekien, gure istorian izandako guztia, bere amama, bere amamaren amama, eta aren amamaren kondaira ekien. eta areago, ziur... "Zer egingo genduke Laminik gabe; gure Euskalerrriaren kondaira galdua betirako!" pentsatu eban, eta bapatean aizearen txistukada inoiz baino bitxiago entzun eban, urte askotako aots zaar eta ozenaren antzekoa...

– Osane, maitea! itzartu zaitez! eguzkia zure ogeraino leioratzen da eta zu ondino lo zorroan...!

Osanek. ozta-ozta begiak zabaltzen asi zan bitartean. eskoieko eskuan estutua zeozer dizdiratsua ikusi eban...

PALMI MERINO

# MONTIANO

## MONTIANO

Oraintsu joan jaku gure Montiano adiskidea erioztearen besoetan, beingo baten joan be. Larogei urte luze sorbalda-ganean, baiña lanerako gogoia moteldu barik. Gaztetan lez, zaartzaroan be besteen alde ekiteko beti gertu egoan gizona. Gaztetan, Katoliku Ekintzaren bultzagille, zuzendari ta zabaltzaille; zaartzaroan, Irugarren Adiñekoen laguntzaille. Asmo ta adore barriz beterik beti. Egille ta eragille. Ekintzaille sutsu azkeneraño. Txalogarriak onelango gizon eta emakumeak!

Nik gaur emen Montianoren beste alderdi bat aitatu gura neuke: euskerea zabaltzeko egin zituan alegiñak, batez be "EUSKERAZALEAK" alkartearen barruan. Orrenbeste ta geiago zor deusagu euskerazale guztiok, Bilbo-inguruan eta Bizkai osoan beintzat.

## EUSKAL ALFABETATZEA

Antxiña ez dala jaso nituan, beiñolako ikasle batek bialduta, "LETRAKIT"-ek argitaraturiko liburuxka batzuk, euskal alfabetatzearen gorabeerak gaitzat zituela. Eurotariko batek izenburu au daroa: "ALFABETATZEA EUSKAL HERRIAN (1960-1990). Kronika Laburra". Bizkaiko barri Jose Luis Lizundia adiskideak emoten deusku.

Lizundiak ia asieran bertan diñoskunez, "ez da erraza Bizkaiko alfabetatze mugimendu eta kanpainei historia egitea...". A ta guzti be, gerroste luze ta illun atan izen eta ekintza batzuk aitatzen ditu: egia danez eta zor jakonez, danen aurretik, Xabier Peña; urrengo, Xabier eta Joseba Gereño anaiak, K. Rotaetxe, Jaime Goenaga... Baita D. Jose Etxeandia be ("abade frankista, baina euskaltzain urgazlea"). Gauza arrigarria bada be, EUSKERAZALEAK alkartearenik, ez izenik ez ekintzarik ez dau aitatu be egiten Lizundiak! Jakineza? Ezjakin-gurea? Xabier Peñaren bidetik, eta beronen ikasbidea oiñarritzat arturik, ez ditu, ba, alegin eta lan makalak egin alkarte onek euskerea, batez be Bizkaiko euskerea-irakatsi ta zabaltzeko!

Ez naz ni iñor "EUSKERAZALEAK" alkartearen joan-etorri luzea zeatz eta meatz jakinazoteko.

Zorionez, bizirik doguz beronen Zuzendari biak, Jesus Oleaga ta Iñaki Zubiri, eta bizirik, zorionez, alkarte bera be, bere buruaren barri edozeiñi emoteko gertu eta lanari ekiteko gertuago, zarata andiegorik atara barik. Baiña zeozertxu esan gura neuke, gure Montiano alkarte orrentantxe eta orrexen bidez ezagutu nebalako.

## IKASBIDE BARRIAK

Orduko Bilbo barruko erdal giro ito aretan, EUSKERAZALEAK alkarte euskerearen alde lan egiteko sutan ebilen. Ikasbidea edo metodoa eratuta eukan: Xabier Peñarena, baiña ikasgai laburrago ta ugariagotan zatitua. Oker ez banago, samurtze ta errezpide lan au Montiano berak egiña zan, ikasleentzat mesedegarri zalakoan. Izan be, Montiano Akademia baten zuzendaria zan, eta pedagogia arloari jaramon andia egiten eutsan beti. Nondik edo andik diru-laguntzak be lortu zituan alkarteak (barkideen arpidetzaz ganera)..., eta orra or metodo barria kalean! Kalean baiño gurago eben Montianok eta EUSKERAZALEAK lagun askoren eskuetan... eta sakelean, edozein lekutan eta edozein ordutan irakurri ta ikasteko moduan. Eta, orregaitik, EUSKERAZALEAK-en liburutxu guztiak, edo ia danak, sakel-liburuxkak izan dira, eta millaka zabaldu dira Bizkai guztian, ia beti doan! Bilbo Erri-Irratiak be aldikada baten egunero-egunero emoten zituala uste dot. Ikaskaiak laburrak, argiak eta errezak, egunean bat ikasteko modukoak, ikasle asibarria poztu ta adoretuteko berebizikoak. Iztegitxuak, jardukizunen itzulpenak, irakurgai errez laburrak, alkarriketa egokiak...

Baita beren-beregi, eta leiaketa baten bidez, lortu zan metodo barri atsegin bat: "NORA ZOAZ?!", Iñaki Goikoetxearena. Ba ete daki iñok zenbat bider argitaratu ziran liburutxu orreek, zenbat ale zabaldu izan diran ordurik ona?

## MONTIANO BULTZAGILE

Asiera-asieratik izan genduan gure Montiano EUSKERAZALEAK alkartearen barruan: ia beti,

idazkari lez; bein edo birritan, lendakari-orde lez be bai. Baiña J. Oleaga lendakariak bein baiño sarriago esan eustanez: "EUSKERAZALEAK... Montiano da!". Ez eban gure Jose Antoniok euskerea berba egiteko bestean sekulan ikasi, baiña ekian apurra besteei zelan irakatsi. ikasbide errez eta barriak nondik nora sortu ta zabaldu, euskereari legegizonen eta agintarien aurrean bide barriak zelan edegi, ikasle ugari sortu eta ikasleoi, bein sortutakoan, nondik nora eutsi: orra or Montianoren asmoak eta alegin biziak ainbeste urtetan.

Ikasle barriak irakurgai samurrak eta ariñak izan egiezan, berak jarri zituan itzultzaileen eskuetan inglesetik itzulitako liburutxu batzuk, berba urriz eta esaera laburrez egoki jantziak, guk euskera errez eta samurrean jarri gengizan. Olanxe sortu, argitaratu ta zabaldu zan "IRAKURGAI ERREZ POLITAK" deritxon bilduma ori. Eurotariko leenengoak, beintzat, Xabier Peñak eta biok euskeratu genduzana badakit, Montianoren eskabide sutsuei ezetzik emon ezinda.

Peña adiskideari eta bioi eskatu euskun barriro laguntasuna, beste asmo eder bat aurrera eroateko: iztegiarena. Erderazko berben zerrenda berak autatu eban, Urkijoren laguntzaz, ez dakit nongo ereduari jarraituz. Eskuarteke iztegi labur, zuzen eta argia lortu nai eban, berba gitxitan baiña egokitan gure inguruko euskerarik geiena ulertu ta erabilteko lagungarri izateko modukoa. Ez eukan beste asmorik sakel-iztegitxu apal onek. Zenbat ale argitaratu diran, zenbat argitalpen izan dituan? Ez da gauza erreza izango ori jakitea. Arrezkero era askotako euskal iztegi barri ugari plazaratu da gure artean; Montianarenak, alan da be, bere lekuri ez dauala galdu dirudi.

Bear bada, iztegi onexek gordeko dau ondoen Montianoren izena, IKAS bere izenaz baiño Montianoren izenaz ezagunagoa da-ta. Baiña ez da berau aren lan bakarra, ezta andiena be.

### EUSKERA IKASTETXEETARA

Orduko denporetan euskereak ez eukan ezelango lekuri gure ikastetxeetan: ez erriko eskoletan, ez fraide-mojen ikastegietan, ez goiko ez beeko mailetako ikastoletan. Politika-giroa zertxobait samurtzen asita egoalakoan, EUSKERAZALEAK, euskereari gure eskoletan ateran bat edegiteko asmotan, izenbatze zabal bat be egin eban Bizkai osoan. Baita

millaka izen eta eskari batu be! Ez ete zan berau izan gure leenengo "referenduma" euskerearen alde? Eskari guztiok Madrillera eroan, Villar Palasi ministroaren eskuetan utzi, jaun aren berba onak entzun, eta etxera. Ekintza onegaz ez zan, agirian beintzat, gauza andirik orduan lortu, Madrilen beiñipein. Baiña kanpaiña orrek euskal gogoa ta zaletasun asko bizkortu zituan Bizkaiko euskaldunen artean, batez be. Gure Montiano aurrelari eta beargin sutsu izan genduan ekitaldi orretan be.

### EUSKERA ELIZKIZUNETAN

Besterik eziñean, alde batetik, eta euren buruak kristiñau zintzotzat artu gura zituelako, bestetik, bilbotar askok San Antongo eleizan erakusten eta berotzen eben orduan euren euskalzaletasuna, Don Klaudio andiaren ondoan eta inguruan. Ortxe zertu ta sortu zan beste ekitaldi bat be: euskerazko eleiz kantak batu, argitaratu, zabaldu eta erabiltea. Jaierojaiero San Antonen batzen ziranentzat eta Bizkaiko kristiñau askorentzat guztiz mesedegarri izan zan liburutxu orri "ALKARTU DANOK" deritxo. Kanta-liburu au eta baita MEZAREN EGUNEROKOA be Bilboko eta Bizkai osoako parroketan ezagutuazoten eta zabaltzen makiña bat ara ta ona joate ta atejote egin zituezan Montianok eta bere lagunak, euron artean andrazkoen talde txalogarri bat aurrenengo zala. Elizbarrutiarteke Batzordeak bere kantaliburuak eta meza-liburu barriak argitaratu eta zabaldu arte, EUSKERAZALEAK alkaratearen liburu-txuok mesede galanta egin eutsen euskal kristiñauen gozo-biotzei.

Iru-lau lerro idazteketan asi eta larregi luzatu naz. Baiña esandakoak esan eta gero be, Montianoren eta EUSKERAZALEAK alkaratearen alderdi batzuk baiño ez ditut emen ikutu. Nok egingo deusku alkarate onen barruko historia zeatza? Bere leenengo bazkideak eta lendakaria bizirik dagozan artean egitea izango litzateke gauzarik onena. Paperetan idatzita geratu jakuna asko izango da, bear bada; baiña buruko arkibuetan gorderik dagoana geiago ta jakingarriago. Zelan legoke berarizko sari bat sortzea olako ikerlan batentzat? Alkarate onen gaurko zuzendariak dauke azken berbea.

KARMELO ETXENAGUSIA

---

---


## MALLONA TA ASTIGARRAGA GOTZAIN EUSKALDUN BARRIAK

---

---

Pasiotarrak oraintsu izan dira aukeratuak Eleizeari Gotzain barri bi emoteko, bata giputza ta bestea bizkaitarra.

Biai buruz zerbait esan gura dogu gure ZER onetan.



*Iñaki  
Mallona,  
Gotzaiña*

Mallona'tar Iñaki, Fruniz'ko Botiola auzoan jaio zan. Orain 59 urte dirala, Puerto Rico'n dan Arcibo'ko gotzaina eta auzo onetan bigarren gotzaina da. Mallona'ren etxea dan Lezamiz'tik urrean dago Jauri baserria eta antxe jaio zan Moyobanba'n Gotzain dan Benantzio Orbe.


Fruniz erri aundia ez da, bosteun biztanle inguru, eta orantxe dagoz iru Gotzain bertako semeak: Orbe, Mallona eta guztiok ezagutzen dogun eta oraintsu Zamora'ra Gotzain joan jakun Juan Maria Uriarte.

Mallona Gotzaiña Puerto Rico'n izan da parrokiari lan egiten eta bertako Gotzain egin dabe. Erroma'n Jaunaren Agerkunde edo Erregeen egunean ipiñi dautsoz eskuak Aita Santuak berak, Gotzain izateko.

Izan dogu erea Iñaki Mallona'gaz alkar izketa egiteko, Fruniz'en bertan. Arduratuta dago zeregin aundi ori zelan beteko ete dauan eta apaltasunez esaten dau nori gogoratu ete jakon bera gotzain egitea.

Benetan ardura aundia eta erantzukizun aundikoa da artzen dauana eta ba-daukagu itxaropena lezamiztarrak bere bizia oso-osoa eskiñiko dauala orretera.

Gure aldetik, zorionak berari eta eskari bizi bat Jaungoiko AITA onari, bere seme au zaindu eta indartu dagian.



*José Luis  
Astigarraga,  
Gozzaiña*

Abenduaren amabian, Deustu'ko pasiotarren lekaide-etxean Astigarraga ta Lizarralde'tar Jose Luis, azkoitiarraren gotzaintza ospatu da (51 urtekoa).

Ospakizun onetan berari laguntzen beste gipuzkoar ospetsu bi izan dira: Irizar'tar Mikel Callao-Peru'ko Gotzaiña eta Orbegozo'tar Jose Agustin Pasiotarren Nagusi orokorra.

Gure Jose Luis Astigarraga Lizarralde 1940'an jaio zan eta bere etxeok orain Elgoibar'en bizi dira.

Gabiria Gipuzkoa'ko erritxuan egin eban batxiller ikastaldia eta Araba'ko Angosto'n lekaidetu zan, botoak egiñaz, 1956'an, dagonillaren 5'ean.

Tafalla'n eta Urretxu'n egin ebazan eleiz-ikasketak eta 1961'eko otsaillaren 2'an egin zan abade.

Gero Lauxeta Ikastola'n, Amorebietan, izan zan irakasle eta emen urte batzuk egin ondoren, Madrid'en gertatu zan Ameriketara joateko. Puerto Rico'ko Lares'en izan zan parrokiari laguntzaille eta gero Caribe'ko Lurraldean Ordezkarari.

Orain Yurimaguas (Peru)'ko gotzain izendatu dabe.



## BELENAK

Belenen sasoia dala-ta, aurten be, beste urteetan lez, BELENDARREN ADIZKIDEAK euren "BELENAK" imiñi dabez, Bilbao'ko SANTIAGO Deunaren Eleiza Nagusiaren aterpe "Gotikoari".

Eta Belendarrai dagokienez, guztiz ondo bete dabe euren zeregiña: guztiz, 17 aurkezpen ikusgarriak izan dira. Zertzelada txikiena be aiztu barik egin dabez; ikusten da, euren biotzean daroetzan Jainkozaletasuna ta lagun-urkoai dautsen maitasunaz, egiñak izan dirala. Ori dana euren ertilarien trebetasunaz lagunduta izan da, geuri eskaiñi dauskuezan Belen'etako ikusgarrizko edertasunak.

Ori dala-ta. ezta arritzekoa. ainbat ume, neska-mutil eta andra-gizon. Belen'ok ikustera joan dirala oartzea. Urteeran danak pozik aurkitzen ziran, Santiago Deunaren aterpean ikusitakoagaitik; eta geienak ikustaldia egiten joiazala be bardin. danak goralduten eben ikusten egozan guztiagaitik.

Orretarako, urtero lez, lan luzea egin dabe, zortzi illabebetan lan orreri lotuta egon dira, euren jolaseko denpora barruan jo ta ke euren asmoakaz, gero egiz taiatutzeko.

ZORIONAK ba BELENDARRAI, euren lan txalogarriagaitik eta adorea, asmo barriakaz batera, Jainkoak emon dagiezala bide orreri aspertu barik jarraitu dagitsoen.

Aurten jarri dabezan ikuskizunak eta imiñita egon diran zerrendak. oneixek dira:

- 1.- Artulez (lanaz) utz-utzik landautako jaiotza.
- 2.- Napolitandarren Belena.
- 3.- Jaiotza. Emen eguna ta gaba, geldiro-geldiro aldatzen dala. (Au Atxuri'ko burnegille batek egiña).
- 4.- Egunsenti baketsua. Burniariz bakar-bakarrik egiña.
- 5.- Karrantza'ko SAN ESTEBAN eleizaren inguruan. (16 urteko gazte batek egiña).
- 6.- Beste jaiotza bat.
- 7.- Bilbao'ko 1800'an SAN ANTON'go eleiza inguruan. Emen Ibaiazabal ibaiaren gañean, antziñeko "irola" be ikusten da, orduko denporan egoten ziran erara.
- 8.- Iragakundea.
- 9.- Ikerkundea.
- 10.- Ostatu billa.
- 11.- Belen'en jaiotza.
- 12.- Izarraren bidean.
- 13.- Artzañai iragakundea.
- 14.- Erregeen gurtzea (Erregena).
- 15.- Egipto'ra iges egitea.
- 16.- Errubako Ume Deunak.
- 17.- Sendi Deuna.

Aurkezpen onein gañean, bakoitzak bere izen-burua erderaz eta euskeraz idatzita eroian, ikertzaille guztiak obeto ulertu ta jakin gengan zer gengoan ikusten.

Ikertzaillean artean geure agintari bat baño geiago izan da: aurten Bilbao'ko Alkate Jauna ta igaz Bizkai'ko Aldun Nagusia, geuk dakigunez. Biok pozarren egon ziran ikusten eta arrituta, ez ekielako geure Bilbao'n olako lan eder eta ikusgarria egiten zalarik.

Naiz eta jente asko joan Belen'ok ikustera, tamala da beste askok oindiño ez dakiela olakorik geure errian egiten danik. Au be "kultur" saillan sartzen da ta onetzaz itz asko egiten daben batzuk, gero ez dabe jakiten zer dauken euren ondoan. Tamala benetan!

Badakigu Bizkai'ko ta Euzkadi'ko Eleiza Nagusietan euren jaiotza iminten dabela, baña gauza ona izango litzake lan orreixetan arduradunak ikertalditxo bat egin eitela Santiago Deunaren aterpean iminten dana ikusteko ta. bide batez, asmo barriak artu egiezan eta olan, urrengo urteetarako, bear ba'da, euren jaiotzetan beste zertzelada barriak sartu dagiezan.

Bestetik badakigu "Belendarren Adizkideak" gertu dagozela euren laguntasuna edozeñeri emoteko.

Ortik kanpora beste jaiotza batzuk be ikusi doguz, ots: Bilbao'ko erriberako merkatuan. Emen iru jaiotz ikusi doguz: bata arrain-saltzaleen artean, euren sare ta arraunakaz apainduta; beste biak okela ta ortuariak saltzen diran tokietan eta jakiña, oneik baserri tresnakaz ormiduta.

Emetik kanpora, guztiz ikusgarria da, Enkarnaziño edo Gizakuntza enparantzan, Dominikotarrak (Berrio-Otxoa'tar Balendin Deunaren kidekoak) euren eleizan iminten dabena.

Azkenez. Bilbao'ko sal-erosle batzuen erakus-tokietan be euren jaiotzak iminten dabez. Naiz eta geienak txikiak izan, urtero erakusten dauskue, ludiko Jai ederrenetarikoetan gagozela.

Oneixen artean, Dr. Areilza kalean, ia Autonomia kalera eldu baño len eskerreko aldetik, jaiotz polita ta egoki egiña jarri dabe. Naiko anditxua da ta an ikusten dira: basoak, bide zidorrak, etxe batzuk sakanatuta, errekatxua ta, jakiña, aurre-aurretxoan, ondo ikusteko eran, aterpe baten jaiotza.

Onegaitik, gauza txalogarria izango litzake, kirizitiñauen sal-erosle ta etxe guztietan euren jaiotzak jartzea ta ori, naiz eta jaiotz txikiak izan.

Bizkai'ko lekaimetxe baten be, euren etxe barruko barne-bideetan Belen'eko irudi egoki ta politak iminten dabez. Guztiak eurak egiñak dira ta irudiak paper baltzan egiñak dagoz, gero "polispan" zurian jarrita, ederto ikusteko erara. Olan edozein lekutik doazela Gabon-Jai Ederrenetan gagozela gogoratzen dira.

Onelako gauzak ikusteak poztasunez betetzen gaitu, batez ere jentea bake-zalea dala erakusten dogulako, naiz eta ludi-zear eta, zoritxarrez, gurean be bai, gaiztakeriak eta odol-ixurea sarri ta lar izan arren.

Ia datorren urtean jaiotz ugariagoak ikusten doguzan, Jai Eder au erakusteko ta batez ere geienak bakearen alde gagozela adierazteko. Olan izan dedilla!

Eta amaitzeko, or doa zortziko txiki bat:

Belen'go Josu-Jauna	Benetan ZORIONA
etorri jakula.	izan dagizula,
gizonai poztasuna	biotzez opa dautzu
emon dagigula.	aizkide dozula.

EGILEOR'TAR JON

## YUGOSLABIA

### EGOEREA

Anai arteko guda ikaragarrian eta odoltsuan datza. Urrutizkuñean Croazia'ko erri sakabanatueta, 60 milla biztanle guda aurretik ebazan Danubio'ko kai garrantzitsua ta gudarako gerturik egoan Vukovar'en batik bat. gorpuak. illotzak mordoska ta iguingarrik itxuran kaleetan zear eta eritegietan agertu oi dauz.

Tamalgarria benetan. Danubio uri ederrenetariko au zearo deuztuta. suntsituta dagerkigu, ta aldi asko ez dala itxasontzi eder baten 5 milla notin gitxienez lurralde goialdeko portuetara iges egin eben.

Lurrez be millaka urten dira Italia'ra, Albania'ra, Austria'ra... len baten etxe bikain ederrez eta oroigalluz Europa osoan ain ospetsua izandako uri onetarik.

\*\*\*

### ERRIALDEAK

Eslovenia'k eta Croazia'k Urrillaren zazpian euren buru jabetasuna aldarrikatu eben.

Europa'ko Legebatzarrean Euro ordezkari dogun Gangoiti'tar Jon euskaldunak C.E.'ko Ministru Batzarrean Lendakaria dan Peter Dankerter'i eskatu oi eutsan lengo baten C.E.'k errialde bi onein burujabetasuna aintzat artu bear ebala. ille batzuk dirala lurralde onein legebiltzarrak askatasun gogo ari agertu ebelako. Irugarren errialdea Bosnia inguru-inguruan dabe.

Emengoak geienbaten mahometarrak dira ta berez ez dabe gura gudan sartzerik. Bosnia'k bi milloi t'erdi bizilagun inguru ditu.

Beko aldean Mazedonia. laugarren lurraldea dogu ta mazedoniarrek be errialdeko Lendakaria dan Kiro Gligorov'en bitartez askatasuna eskatu dabe. Bi milloi dira guztiz eta lurrez Yugoslabia'ko %10'era soillik eldu oi dira.

\*\*\*

### ALKARTUTA

Dana dala lau errialde oneik. goitik ikuspegi bat bota ezkeroz, alkarturik dagoz.

Lenen ministrua Ante Markovik croaziarra dabe.

Bestaldetik Serbia. Montenegro. Vojvodina ta Kosovo dagoz. Garrantzitsuenak Serbia ta Montenegro.

Nagusiena ta burrukalaria ala ta be, Serbia. Montenegro'k be esku artu dau guda negargarri ta anker onetan bere gudaritzaz Serbia'ri lagunduz.

Oraingoz Eslovenia goialdetik eta Bosnia beekaldetik serbitarren erasoengandik aske dagoz.

Eztakigu alan da be noizarte. Guda au zazpigarren illabeteetan sartu da, urte azkena dogu, ta amaitzeko itxurarik ez jako igertzen.

### ERASOAK

Aldi luze onetan gogorkiro dabilz Croazia erasoten eta bertako ia erdia eureganatu dabe. Egazkiñak, itxasontziak eta tankeak eundaka darabillez.

Croazia'k bestalde gudaritza txikia dauka eta erriko jendea bide dala egin dabe lekuan lekuko gudaroste bat.

Goliat David'en aurka daukagu. Guztiz croaziarrak aldezeak 200 milla inguru izan bear dabe. baiña izkillu gitxiz, geien baten metrall-izkilluz edo ametralladorakaz jokatur.

Errietako jendea ugari il da ta ilgo. onelako guda negargarri ta ezbardinean. Gure Euzkadi'n izan genduan itxurazko guda dirudi.

Egunotan diñoenez Serbia'k lurretik lurrerako misil edo su-ziri bereziak erabili ditu. ta Europa erdi-ixillik.

\*\*\*

### BAKE-UNEAK

Gudu-arte edo bake-unea 16 bider eten dabe ta Cuellar Jaunak oraindik baldintzak ez dirala betetzen ta, Europa'ko gudaririk ez bialtzeko diño.

Oneik guda-mugak zaintzeko izango ziran, geroko baten pakea osorik lortu arte.

Zelako mugak izango dira? Asierakoak ala oraingoak, Serbitarrak gura daben lez? Alemania'k ontzat artu dau Eslovenia ta Croazia'ren askatasuna ta zerak gertzen doa opizialki Urtarrillaren 15'ean beste amaika laterriakaz batera bi onein burujabetasuna onartzeko.

Baldintzak ipiñi dautsez, eta oso garrantzitsua egiz. alde txiki edo minoriak laterri barruan euren izkuntz eta oiturakaz aske, jareni bizi daitezala.

Beste iru baldintz ere bai.

Oraingoz gudaririk ez, baiña begiralariak bialdu dabez. bein eta geiagotan. Euretarrak batzuk arrisku nabarmenak jasan be bai. Gaiñera. bear dan legez, izkillu barik doaz.

Vukovar'en, serbitarrak euren buruzagi onenetariko bat galdu dabe. Bratic generala, ta illen artean euneko ogetamaika (%31) guda-mailla goikoak edo opizialak dira. Kopuru izugarria ziurrik asko.

Geienetan (%5) soillik or-nunbait izan oi diralako.

Tankeak be Jarregi galdu dabez, oiñezko gudari gitxi dabezela-ko.

Zioa sei errialdetatik, oiñezko gudariak errialde bik bakarrik bialdu oi dituelako.

\*\*\*

### URTE ONETAN

Croaziarrak orain Osijek 80 milla biztanle dituen uria aldezten diardue. Guda-leku ziurra eurentzat. eta serbiatarren erasoaldiak bertan itoko dirala uste dabe.

Biar, Jainkoa lagun. 1992'gko. urtebarriari asiera emongo dau-tsoqu.

Guda onen amaiera ikusteko pozkor gagoz. eta urtetan diran laterri ta lurralde barrizatueta benetako gentza. pakea onartzeko urduri.

Gaur egun ezin lei onartu Europa Zaar onetan olako guda ankerrik izatea. Zer diñot? Ezta ludiko beste errialdetan ere. Sarritan abereak eurak baiño ankerragoak gara.

Urte Barri zoriontsu bat guztioi.

Bilbao'n. Gabonillaren 31'an.

ARREGITAR JOSU

## ARGI BILLA

Egunak labur, gerizak luze  
Urtea doa amaitzen,  
Ule zuritan mendi-gallurrak  
Urrun-min dira agertzen.  
Bake-egarriz nabaitzen dogun  
Euzkadi dago nozitzen  
Gogorkerizko odol-obenak  
Ez diralako amaitzen.

Euzko Arbaso-jator oiturak  
Gizakia eben leenena.  
Orain osteria samiñez gara:  
Deungekerizko obena!  
Askatasun ta bake-eraille  
Areriorik txarrena;  
Erru-bakoak birrintzen dira  
Itaundu barik euren.

Goiko Jaunari otoi gartsuak  
Gogo-biotzez jasorik.  
Geure Erritik aldendu daiten  
Odolkerizko lausorik,  
Gabon-aroan izan zakiguz  
Bakezko asmoz jantzirik  
Zorion-agur anaikorrenak  
Biotz-barrutik bizirik.

## BESTE BERTSO BATZUK

Ituna aurrean da pizka  
bat eiten bildurdu,  
Egileor' ek makiñe bat  
eta bertsoak eskatu.  
Olako gudari bateri  
zelan egingo ukatu,  
Zelako ala doa baaña  
emen eiten dot abestu.

Olerkari maite  
izan zaite,  
Euskaldun gurdi  
guztien aite.  
Euskera zuok barik  
aurrean ezin leike,  
Gure ama - lur  
dauka gureite.

Abezlari gitxi  
oo... ! ez itxi,  
Sabino Arana  
zuen eretxi.  
Olerkariok gau  
ta egun idatzi,  
Askatasuna  
rimas jaretxi

Aa...! diñozun lez  
ori da gauza bat txarra,  
Maitasunez egin dogu  
da aulko batzarra.  
Aite Santi burua dala  
artun degiela indarra,  
Ia salbatzen dogu ba  
Gure Euzkadi zarra.


AURRE'TAR ANTON

(OLERTI-EGUNEAN LARRA' N)

## IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etixerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dau-tzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat, EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñita eta 1.200 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbide au ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKAR-TEA. Colon de Larreategi 14. 2.ª, eskoia. 48001 BILBAO.

# IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko  
 Kutxa. Bere berbea bete  
 eta zure bear-izanak  
 ulertzen dauzan Kutxa.  
 Etorkizunera zabalik dagoan  
 Erakundea, etenbako  
 gora-gogoagaz  
 bere erriko jenteari  
 laguntza-gai osoak  
 eskintzen dautsozana.  
 Beti dago zugandik ur  
 izkuntza bakar baten  
 alkar ulertu daikegun.*



**Bilbao Bizkaia Kutxa**